Baleike

Zumaiako herri aldizkaria. 1.go zbkia. 1994ko Ekaina



Eztabaida:
Zumaia Bizirik vs. Urokai

Elkarrizketa:
Pello: "Gaurko gazteak beste iniziatiba bat zeukak"

Erreportaia:

Zumaian haurtzaindegi bat?

"Baleike" aldizkaria hilabetero aterako da kalera. Ale bakoitza 100 peztatan salduko dugu, baina harpidetzaren bitartez ere jaso dezakezu zure etxean. Harpidetzaren bitartez gainera merkeago aterako zaizu: 6 ale (urtea amaitu arte) 500 peztagatik. Guretzat ere interesgarriagoa da azken sistema hau, horrela hobeto kontrolatuko bait dugu tiradaren neurria. Harpidedun egin nahi badezu, zatoz Foronda Kultur Etxera txartel honekin:

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak: .....

Helbidea: .....

Tlfno zenbakia: .....

Harpidetzaren dirua txartelarekin batera ekarri, mesedez.

PREMIAZKO TELEFONOAK:

Kultur Etxea	86 10 56
Polikiroldegia	86 20 21
Gurutze gorria	86 10 93
Udaletxea	86 02 50
Gizarte Zerbitzuak	86 22 00
Osasun zentrua	86 08 62
San Juan Egoitza	86 12 73
Pentsiodunen Egoitza	86 17 00
Tren Geltokia	86 11 27
Taxi geltokia	86 13 60
Bake epaitegia	86 00 67
Posta	86 15 00
Udaltzaingoa	86 18 70
Pilotalekua	86 21 72
Larrialdi zerbitzua	46 11 11
Ludoteka	14 32 64

BALEIKE

HERRI ALDIZKARIA

Foronda kultur etxea

tfnoa: 86 10 56

ARGITARATZAILEA

ZUMAIAKO GAZTE BATZORDEA

LAN TALDEA

Iratxe Aizpurua
Esther Martinez
Itziar Manzisidor
Xabier Azkue
Igor Uranga
Josu Waliño
Gorka Zabaleta

PUBLIZITATEA

Amaia Korta (860422)

KOLABORATZAILEAK

G.E.G., Natur taldea, Mirian Romatet, Aitor Leiza Imanol Manterolå, Arte taldea

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E. (Zubillaga Oñati)

Tirada Berezia: **2.500 ale**

Lege gordailua: SS-405/94

BALEIKEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Zumaiako Udalak diruz lagunduriko aldizkaria

Editoriala..... 3
Eztabaida: *Kirol Portua*..... 4
Elkarrizketa: *Pello Etxabe*..... 6
Ze berri?..... 9
Gaztedia: *Gazte Batzordearen II. urteurrena*..... 10
Natura: *Zumaiako inguruneak zaintzen*..... 12
Euskara: *Euskararen egoera Zumaian*..... 14
Erreportaia: *Haurtzaindegi bat Zumaian*..... 15
Komikia..... 18
Antimilitarismoa: *Zumaiako herria insumisioaren alde*..... 20
Hezkuntza: *Zumaiako institutuaren x. urtemuga*..... 22
Sexualitatea: *Sexuan ere, usteak erdi ustel*..... 24
Izerdi patsetan: *Fran Aizpuruarekin elkarrizketa*..... 26
Musikaz blai: *Elvis, Rock & Rollaren mitoa*..... 28
Literatura: *Lubaki Banda*..... 30
Kultur Agenda..... 32
Denborapasak..... 34
Merkatu txikia..... 35
Gutunak..... 35
Argazki zaharra.....azkena

Hitzaurrea

Kaixo Zumaia! Portadako mutil hori bezain zoratuta ote gaude? Herri aldizkari bat Zumaian? BALEIKE !! Gazte Batzordeak bere bigarren urtea betetzean etorri zaigu mundura beharrezkoa genuen aldizkari berri hau. Beharrezkoa, Zumaian ez bait genuen gaur arte bertako informazioaz arduratuko zen horrelako komunikabiderik. Aldizkari hau hilabetero aterako da, eta gainera euskara hutsean. Gazteak egindako aldizkari bat denez, bere izpiritua halakoxea izango da. Dena den, gaztetasunak adinik ez du eta guztioi zuzendutako zerbait egin nahi degu. Herri aldizkaria dela ere esan degu, baina ez da hala izango herriak irakurtzeagatik soilik, egin ere herriak berak egingo duelako baizik. Baleike hau lortzea zaila izatea, baina, guztion parte hartzearekin aurrera ateratzea ere baleike!

Uztaileko alea prestatzen hasiak gara jadanik. Bidali itzazu zure idatziak Foronda kultur etxera **Ekainaren 9a** baino lehen eta argitaratuko ditugu.

KIROL PORTUA BAI

Ricardo Peña

Zumaiako alkatea eta Urokai elkarteko lehendakaria

Aldizkari berria dela eta portuari buruzko kolaborazio batekin parte hartzera gonbidatu naute.

Portuko gai hau, azkenengo hiru urte hauetan, luze eztabaidatu da, beraz ez dut pentsatzen ildo hortatik jarraitu behar dudanik.

Zumaiako Udalak, 1993ko uztailaren 29an, gehiengo haundi batekin, Portuari buruzko Ordenazioa onartu zuen.

Denbora honetan Portuaren garapenari buruz eritzi ezberdinak azaldu dira. Batzuek barra konpontzea nahi zuten baino barrukoa ikutu gabe; besteek barra konpondu eta aldi berean barnean zerbait egitea, kirol darsena adibidez; beste batzuek berriz, barra konpondu bai, baino barnekoa beste modu batean antolatu.

Eritzi guzti hauek, eta aipatu ez ditudanak, guztiz legitimoak dira, baina bidezkoa da baita ere erabakiak hartzea.

Zumaiako udalak, 1993ko uztailaren 29an, gehiengo haundi batekin, Portuari buruzko Ordenazioa onartu zuen. Beraz Zumaiako herriak, bere ordezkarien bidez bere eritzia eman zuen eta eritzi besterik ez da, Eusko Jaurlaritzari bait dagokio erabakia hartzea, baita dirua jartzea ere.

Momentua ez da txantxetakoa, Zumaiako herriak asko du jokuan, Portuko Garapen orokorra behar dugu.

Guk geuk, apostu garbia egin dugu: datorren mendeari begira egindako apostua. Denborak epaituko gaitu. Denborak esango du ea asmatu dugun edo ez, aldez aurretik jakinda zerbait egiten duenak hanka sartzeko arriskua duela, eta jarrera inmobilistak hartzen dituztenak, aldiz, ez direla inoiz tronpatzen.

Hondarrabiak bere aukera galdu zuen. Orain aldamenean,

Turismoa ere beste aukera bat izan daiteke, oinarrizko azpiegiturak prestatzen badira.

Hendaian, Kirol Portua egin dute. Nolako aurpegia gelditu zaien hondarribitarrei! Zein gustora jaso duten getaiarrek, eta protestarik gabe noski, han sartu behar zen dirua!

Momentua ez da txantxetakoa, Zumaiako herriak asko du jokuan, Portuko Garapen orokorra behar dugu. Turismoa beste aukera bat izan daiteke, oinarrizko azpiegiturak prestatzen badira. Inolaz ere baztertu ezin den aukera dugu hau.

Bide luzea izan da orain arte jorratu duguna, baina oraindik ez da bukatu; egiteko asko dago, ez daukagu aukera hau galtzeko asmorik. Nahiz eta bide luze honetan oztopoak aurkitu, ez dugu amore emango eta lanean jarraituko dugu Zumaiako herriak bere historian zehar izan duen aukera inportanteenetariko bat galdu ez dezan.

Zumaiar guztien parte hartzea bereziki garrantzitsutzat jotzen dugu aldizkariaren atal hontan, horregaitik eztabaida zabalik geratzen da gai honi buruz zerbait esateko duen edonorentzat.

Zuen idatziak Forondan utzi itzazue, Ekainaren 10a baino lehen.

KIROL PORTURIK EZ

Zumaia Bizirik

Azken urteotan Zumaiako badia kutsatuta dagoela, basa belarritaraino iritsiko zaigula, hor padurarik ez dagoela eta ibaia garbitzeko modurik egokiena kirol portua dela entzuteaz nazkatu gera. Honelako argudioak erabiliz Urola estuariaren potentzial ekologikoa ukatzen egindako ahaleginak, hurrengo urteetan depuradora bat izateko aukera galtzea ekarri du.

Izan ere, Europako Kontseiluak honelako guneak deklaratzeko emandako epea joan den abenduaren 31ean amaitu zen. Laku, ibai eta estuariei dagokien eragin handiko guneen deklarazio honek, Zumaian beranduenez ere 1998an geure ur zikinak garbitzeko instalakuntza egoki bat edukitzeko aukera suposatuko zukeen.

Kontu hauetaz jakinaren gainean egon arren, Zumaiako Udalak aukera hau baztertu du; itxura denez, ez dute Urola ibaia estuaria kontsideratzen eta leku honetan hezegunerik edota honen antzekorik ez dagoela uste dute.

Akats ikaragarria izan da. Duela gutxi atera diren Lurralde Antolaketarako Jarraibide (LAJ-DOT) berriek Santixo hondartzako hondargune eta padura babes zorrotzeko naturgune izendatzen bait dituzte. Arazoa onartu ez eta jarrera egoskor hori mantentzeagatik, orain Zumaiari depuradora epe motzean eskuratzea ezinezkoa gertatuko zaio.

Hau gutxi balitz, axolagabekeriekin jarraituz, itsasertzen legedian eta ingurugiroaren eraginari buruzko araudian azaltzen diren gutxiengoak bete gabe, Udalak barraren proiektuari bere oneritzia eman dio.

Gainera, LAJ-DOT berriek 1992koen edukina baieztatu besterik ez duteegiten; hau da, Zumaia bigarren etxebizitza eta turismorako gune izendatzen da eta honenbestez industrigune bezala aurkezten zuten aipamen guztiak ezeztatzen dira. EAJ-PNVk aurrez adierazi zuenez, baldintza hauek ez omen dituzte gustokoak. Gune turistiko bezela mugatuz, Zumaiaren etorkizuna ez dela bideragarria onartu zuten eta ondorioz baldintza hauek aldatu asmoz laneanari zirela.

Badirudi ilusioetan galdu direla eta Eusko Jaurlaritzak, Udala bazterrean utziz, zumaiarron etorkizuna nahi duen bezela bideratu duela. Kanpotik inposatzen zitzaigun guztiari ateak zabaldu dizkiote, Gasteiztik goxoki baten gisa eskeintzen zitzaigun diru publikoa alperrik ez galtzearen argudioa erabiliz. Garbi dago arima deabruari saltzeak zer dakarren!

Eta guzti hau zertarako?

Elitista den azpiegitura bat sortzeko. Nabigatzen ez duten dirudunen harrokerien ispilu den kirol portua eraikitzeko. Bost lanpostu bakarrik sortuko dituen portuaren bidez, "marinerito" batzuk herriko jabe egin eta besteok lan eta lan egiteko, etxebizitza, denda eta merkatalguneetan emango den prezio igoerei aurre egin asmotan.

Zumaiaren garapen turistiko eta kirol portuari buruzko informazioa manipulatzen ari direla iruditzen zaigu. Proiektu hau aurrera eramateko tesi bakarrak, gero eta garbiago, ekonomiaren espekulazioa eta interes partikularrak direla uste dugu.

Guzti hau gutxi balitz, alkateak udal lokalak erabiltzea debekatu digu, begi bistan duena ez onartzeagatik, oposizioaren aurka ikusten ez duenaren zezenaren modura joanaz.

Ez gaude portuko sarrera konpontzearen aurka, ezta badian kirol dartsena bat jartzearen aurka ere. Hala ere, barra, 2.500 milioiko obra presaka proiektatu dela ikusi degu; Ingurugiroarekiko irregulartasun larriak erakusten ditu eta hasierako proiektuarekiko aldaketa garrantzitsuak ere bai.

Zer esango dugu bada kirol portuaz?

Udalak hasiera batean paduraren %25-30 a bakarrik hartzea proposatu zuen. Gero, Jaurlaritzak %70a hartzen duen aurreproiektua aurkeztu zuenean, ez zuen fitsik esan ez eta "Zumaia 2005" taldeetan INGURUGIROA lehen mailako garrantzia zuen gai bezela aztertu zenean ere.

Pausoz pauso jokatu behar dela uste degu, baliabide natural eta eraikitakoen bilakaerak konbinatuz eta hauek nola eboluzionatzen duten ikusiz. Gaurdanik industria, portua edo eta ingurune naturalak hipotekatu gabe, zumaiarrontzat mesedegarriena zer den erabakitzeko astia izango degu gerora ere.

Hasieratik informazio ugari izkutatua izan dela salatu nahi degu. Guztiontzat erabateko informazioa lortzearren gabiltza lanean, Zumaiaren etorkizun eta bilakaerarako dauden aukera guztiak aztertuz. Asmo hauekin sortu zen talde hau eta noski, ateak zabalik ditu ideia eta pertsona guztientzat.

PELLO JOXEPE TABERNAN DALA...

"Gaurko gazteriak beste iniziatiba bat zeukak"

Bada Zumaian tabernari bat sudur azpian bibotea duelarik beti zerbeza ugari emanez dabilena. Erabat zumaiar konsideratzen da gazteen pentsamoldeekin bat datorren gizon jator hau.

Baleike

Pello: hauxe bai benetako tabernaria !

Nikoleko tabernari zaitugun arren, badakigu lan ugari egin dituzula hortik zehar. Zer diozu ba hortaz ?

- Nik egin dizkiat ... puf ! meza ematea bakarrik falta zidak. Ibili nauk Gipuzkoa guztian zehar orain dela 20 bat urte edo gehiago, baita Holandan ere. Ibili nauk igeltsero, lana egin diat urte bete Torreagan ere, eta udaran Santixoko hondartzako kantina genian gu, eta orduan udara iritsi zenean, garai hartan Ricardo huan Torreagako nagusia, ba nik eskatu nion eszedentzi bat bezela udaran irtezeko, etxean lan egin ahal izateko eta ukatu egin zidaten. Orduan irten egin nintzen, etxekoek esaten bait zuten nire ordez bestela kanpotik ekarri behar zutela bat eta etxekoa hobeto zela, eta hor egon nintzen lanean.

Holandan ere izan zinen ...

- Bai, 6 hilabete egin nituen Holandan platerak garbitzen, ez hizkuntzik ez ezer jakin gabe. Nirekin lanean zeudenak ere bakoitza toki desberdin batekoa huen, eta guztiak antzera genbiltzan.

"Niretzat gazte jendea dek kategorikoa, Zumaiako gazte jendea eh?"

Baina azkenean tabernari ...

- Guzti hortaz aparte, egon nauk 16 bat urte puti-kublean lanean emakume guztiekin; bai brasileñak, bai portugesak, espainolak, euskaldunak ... denekin ibili nauk 16 urtetan. Oso esperientzi ona izan huan, oso mundu berezia bait da. Beraien munduan piska bat sartzen baldin ba haiz, gauza asko ikasten dituk, zeren muturreko asko ematen dituk.

Hik pentsatzen dek heure munduan daudela eta askotan sartzen haiz defenditzen beraien artean borrokan edo erritan hasten direnean, baina beraiek alkarrekin segituan konpontzen dituk eta hi orduan geratzen haiz ba ...

Eta jendearekin, klienteekin, etab. oso ondo. Hementxe lana egiten diaten bezelaxe nituan han lan egiten nianian, eta jendeari asko gustatzen zitzaion nire karakterra eta nire postura.

Ondoren etorri nituan hona, Nikol famatu hontara, eta hemen ba beste generazio batekin nabil lanean.

"Nik bigotea diat piskat instituzio bat bezala. Ez zekiat berakin joango naizen mundu hontatik."

ZALLA
TABERNA - ERRETEGIA
* Plater konbinatuak
* Otartekoak
* OILASKO ERREAK
(Enkarguak jasotzen dira)
San Pedro, 4 Tel. 862387 ZUMAIA

OPTIKA ZUMAIA
Txomin Agirre Kaia, 1
20750 ZUMAIA
Tel. 143057

"Puf! meza ematea bakarrik falta zaidak."

Baina Nikol asko aldatu da.Kafetegitik gazteen topagune bihurtzera.Zer gertatu da ?

- Hasieran igual beste postura bateko martxa ipini genian, piskat kafetegi gisa. Baina konturatu gintuan kafetegiak bazeudela gu baino lehenagotik herrian, eta haiek eklipsatzea oso zaila zela, hortik ezin ginela joan. Orduan egin genuena da gazte jendearen mailan, herriko beharra bete, "dentro de nuestras posibilidades" esaten dena.

Eta palko hortatik, nola ikusten dezu azken urteotako zumaiar gaztedia ?

- Gazte jendea ezagutu diat nik hemen, eta neretzat gazte jendea dek kategorikoa, Zumaiako gazte jendea eh ?

Baina asko aldatu al da lehendik gaurdaino ?

- Bai, asko. Oraingo gazte jendearengan, beste maila bat, beste pentsamendu bat, beste iniziatiba bat ikusten dizkiat, gogoarekin gainera, baina ez dute laguntzarik inondik, guztiz kontrakoa, beti problemak, beti pegak, beti nahikoa da antolatzea talde bat politikatik aparte, edozein talde, Gazte Batzordea bezela adibidez eta denetik traba dituzte, Udaletxetik eta ofizialki. Nik pentsatzen diat ofizialki laguntza piskat izango balukete kultura mailan edo ekologismo mailan, edo ...,gazte jendeak badaukala gogoa zerbait egiteko, bai, bai, bai, bai.

Eta soldaduska ?

-Soldaduskari buruz gazteen planteamendua onartzen diat zeren hori dek atzerapen bat, "volver a los tiempos de las cavernas"; ekonomi mailan, jende gazteentzako, lanpostu mailan etab. atzerapen bat. Denbora galtzea eta ezertarako balio ez duen gauza gainera.

Insumiso egingo hintzake ?

- Bai noski.

Bere garaiko musika du gogoko Pellok

Noiz moztuko dek bigotea ?

-Ni Peloiari esanda natxiok: "Hi Peloia, noiz moztu behar dituk txima horiek ?". "Hik bigotea mozten dekenean" erantzun zidak. Nik bigotea diak piskat instituzioa bezela. Ez zekiat berakin joango naizen mundu hontatik.

Herriz aldatuko hintzake ?

- Ez diat uste. Oso zumaiarra nauk eta hementxe gustatuko litzaidake beste mundura joatea.

Herriko txoko bat.

- San Telmotikan Algorrirako tarte hori, Algorri barne.

Oporretara irteteko toki bat ?

- Edozein lekutara. Ez zaidak batere inportikan. Hemendik irtetzeagatik, baita Tuterara ere, baratxuria jasotzera.

"Beti gustatu izan zaidak dantza egitea. Askotan hemen egin izan diat."

Eta jai egunetan zer?

-Jai egunetan gustatzen zaidak jai aldia etxean igarotzea, bakar bakarrikan. Aste bukaerako aglomerazioa horietatik lasaitzeko. Astelehenetan hartzen diat jai eta gustatzen zaidak goiz partean eta arratsaldeko 6rak arte behintzat lasai lasai egotea, edo irakurriz, musika entzunez, telebista ikusiaz ... bakar bakarrikan, neuronak bere lekuan ipiniz. Eta ondoren kalera atera, txikiteo piskat egin (batzutan latza) eta afaldu nonbaiten, Inpernupen, edo Kalarin bestela, eta horrelaxe joaten da.

Amets bat.

- Niretzako ametsa dek Zumaiako eta Euskal HerrI osoko presoak etxean ikustea.

7 MARES
ARRAIN ETA MARISKOAK
BARAZKIAK ETA AURREZ PRESTATUTAKO JAKIAK
7 MARES IZOZTUAK

JUARISTI JATETXEA
* Arrainak eta haragiak aukeran
* Eguneko menua
* Jangela klimatizatua
Basadi Auzategia, 10 ZUMAIA Tfnoa: 861853

Itzurun zaharra ala berria ?

-Itzurun zaharra. Bai horixe ! Zaharrra dagoen bezala. Orain ari dituk zerbait egiten, baina... ez zekiat azkenerako zer irten behar duen.

Zegoen bezela polita zegoen hori. Kanpoko jendeari gainera atentzioa deitzen zion, nola hondartza batetara joateko aldapan gora joan behar zan. Aurrenengo inpresioa horrek egiten dik. Gero, hondartza beraren karakteristikak, gutxik bezelakoak dituk. Itzurungo hondartza horrela mantentzea izugarri gustatuko litzaidake.

"Niretzako ametsa dek Zumaiako eta Euskal Herri osoko presoak etxean ikustea."

Gustoko musika ?

- Nere denborako musika, talde ederrak baizeudek: Pink Floyd, Deep Purple eta nere garaikoak. Oraingoak ez dizkiat ondo ulertzen ze piskat iresi egiten zaizkiat, hori normala dek, "problema generacional" bat bestrik ez da. Ezetz esaten didate askoek baina nik hala diot.

Mikel Laboa edo Su ta Gar ?

- Mikel Laboa. Baino, konparaziorik gabe.

Dantzan oso ondo egiten duzula esan digute...

- Beti gustatu izan zaidak dantza egitea. Asko gustatzen zaidak. Nik askotan hemen egin izan diat, horrela, mostradorean lanean egon, eta jende gutxi dagoen momentuan, agian tango bat ipini edo salsa piskat, eta mari fran estankokoa edo Amaia berak esan: "Hi Peio ! etorri dantza egitera". Segituan nauk hor.

Bakalaua ere bai orduan ?

-Ez, bakalaua ez. Gainera ez zekiat nola egiten den dantza.

Soldaduska: "Denbora galtzea, ezertarako balio ez duen gauza gainera."

orkesta edo deitzen zitzaiona. Eta gero tartean txistulariekin, eta orduan beste dibertsiorik ez huan: beheko plazara joan eta trago batzuk hartu, ta han gure koadrillan egoten gintuen neska-mutilak elkarrekin, eta hantxe, heldu-heldu egin elkarrekin eta dantza egin,

Ez omen du oraingoz bigotea mozteko asmorik..

Horretan artista bat baziok Zumaian.

Gure generazioan izan genian, ez zekiat suertea dela edo, hala pentsatzen diat behintzat; orduan izaten huan musika plazan, baina musikoekin kioskoan, banda, gero talderen bat, eta neka-neka egin, pieza bukatzen zenean neka-neka eginda buelta. Estualdiak ematen hituan. Neskak heltzen zian besoan eta, hik bultza barrura eta berak kanpora, eta kriston batalla izaten huan.

BEKI
KIROL OINETAKOAK
Reebok
AVIA
adidas
NIKE
MARKARIK EZAGUNENAK
PREZIORIK ONENETAN
Aita Mari Auzategian(Garate Auto-Eskolaren aurrean)
ZUMAIA

HERRIA HANKAZ GORA

Hona hemen gaur egun Itzurungo hondartzak duen itxura. Azkar ibili beharko dira, udan kaosa sortzea nahi ez badute behintzat. Ikusiko degu nola uzten diguten geure hondartza maitea.

Portu famatua egiteko konponketak hasita daude. Argazki honetan ikus dezakegu paol muturrean egiten ari direna. Zati honetan pisu handiko harriak ari dira jartzen, dikea luzatzearekin batera.

Santixoko hondartzan ere lehen ukituak egiten dabiltza, kirol portu hori egiteko ahaleginetan. Dagoenekoz eskoilerara iritsiak dira, nahiz eta herritar talde batek egun batez obra paralizatzea lortu zuen, honek ingurugiroarekiko suposatzen duen kaltea ebitatu nahian.

GAZTE BATZORDEA: 2 URTE ETA .... AURRERA

Hara! Nola igarotzen den denbora! Nork esango luke 2 urte besterik ez direla igaro, gazte talde majo bat Forondan bildu eta herriari martxa sartu nahian hasi ginenetik. Bainan denborarekin aurrera goaz, eta hemen gaude, Gazte Batzordearen azken ekintza berri honi adarretatik helduz: herri aldizkaria.

Baleike

Ausartenak rafting egitera joan ziren azaroan.

Nork esango luke duela 2 urte, 24 hilabetetan festa alternatibo, ekitaldi, ikastaro, kontzertu, erakusketa, irteera eta antzeko ekintza pilo hori antolatuko genituela, eta batez ere, nork esango luke 730 egun eskas hauetan, bertan bildu ohi garen jendearen artean horrelako harreman sendo bat lotuko zenik, herriko giroa zeharo aldatu duen harreman bat sorutz. Zeren onartu beharra dago: Gazte Batzordea sortu zeneko bi urte hauetan zerbait lortu bada, herriko gaztediaren arteko lotura sendotzea izan da, guztiok izan bait gara konplize izan ditugun ekintza, festa, txozna, manifa, arazo eta antzeko kontu guztietan, elkarrekin hitzegin dugulako kafe-tertuliak antolatu direnean, eta gure arazoetaz eta batez ere gure herriko arazo zehatzetaz elkarrekin eztabaidatzeko beta izan dugulako. Guzti honengatik, eta datorrenagatik ere gure zorionak Zumaiako Gazte Batzordeari.

Taldeen laguntzaile

Ezin dugu esan ekintza ezberdinak eta batez ere ugariak antolatu ditugunik. Baina inolaz ere desperdiziorik ez duten zenbait gauza egin ditugu, gure mugetan barne: izan dira mendi irteerak, dantza ikastaroak, begirale ikastaroak, kafe tertuliak eta eski irteerak. Ez dugu askoz gehiagorik egin festak aparte, baina egindako gutxi horrekin ere gustora gaude.

Izan ditugu harreman onak eta txarrak udaletxearekin, eta gauza batzu aldatzea lortu dugu. Baina batez ere harro gaude herriko beste hainbat talderen alde ere jokatu izan dugulako: Korrikarako kilometroa erosi genuen, *Gu ez Goaz* -eri Ismaren epaiketarako autobusak antolatzen lagundu... eta beste hainbat taldek gugana jo dute beraien arazo eta egitasmoak azaltzera: *Elkarri, aek, Zumaia Bizirik* etab.

Festa alternatiboak

Garbi dago gure akatsik nagusiena festetan denbora eta gogo asko erretzea izan dela. Bainan udalaren jarrerari aurre egin beharra zegoen eta erantzuna kalean ikusi ahal izan dugu hainbat ihauteri, San Telmo, San Pedro eta udako festetan. Onartu beharra dago ere, 93ko San Telmotako egitarau alternatiboa, Zumaian egon diren onenetarikotzat jo dezakegula, eta nahiz eta gu ez garen festa batzorde bat, borrokatzen jarraituko dúgu udalak bere jarrera aldatzen ez duen artean. Kalean izango gara eta hortarako ere zu behar zaitugu. Beraz ez ahaztu, parte hartu ezazu, bainan ez festetan bakarrik: urte guztian zehar goazen Zumaian ahotsa altzatzera!

Ieize
TABERNA
Juan Belmonte, 6
Tel. 860415 ZUMAIA

L PRACTICAS
ZUMAIA
AUTO-ESKOLA
STOP
* Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
* Praktika eta azterketak Azpeitian
* GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea
Basadi, 12 behea
☎ 861018
20750 ZUMAIA

BAINA .... GAZTEAK ZER?

Bai noski! Ekintzak antolatzen dira eta jendeak parte hartzen du. Festak dira eta gazteak kalean daude a tope pasatzen. Eta zer? Non daude gazte horiek guzti hori antolatu behar denean? Gazte Batzordean 30 pertsona inguru biltzen gara, eta guztion artean saiatzen gara hainbat histori mugitzen. Bainan erretzen zera, eta galderak egiten dizkiozu zeure buruari: Non dira herriko beste ia 2000 gazteak? Akaso ez zaie axola herrian zer gertatzen den? Ala beraiek ez dituzte arazoak, kezkak, gauza desberdinak egin eta beraietan parte hartzeko gogorik? Ala gazteoi tabernan egon eta zerbeza edatea besterik ez zaigu axola? Non dago gazte odol bero hori, bizitasun hori, aldaketa eta lanerako gogo hori?

Bada ordua Zumaian gauden gazte pila hau esnatzen, mugitzen eta aldatzen hasi gaitezen, benetan gizarte hau onera ala txarrera aldatu nahi badugu.

Eta Zumaian hortarako toki aproposa Gazte Batzordea da. Bertan guztiok hartzen dugu parte eta guztiok azaltzen ditugu gure kezkak. Animatu zaiatez eta parte hartu ezazu.



Txorta festa hauetan ere nagusi.

S.O.S.: LOKAL BAT BEHAR DUGU

Guk, gazteok, lokal bat behar dugu gure ekintzak, mobidak, ikastaroak etab. martxan jartzeko. Askotan esan dugu:: ez dugu nahi tabernadun gazteetxe bat, ez dugu nahi eguna etzanda igarotzeko toki bat, baizik eta gazteon topagune, tailer eta dinamizatzaile izango den lokal bat nahi dugu, ez besterik Udaletxeak ordea, behin eta berriro gure eskaerei uko egin die beraien esanetan ez bait dira gutaz fido.

Baina errealitatea beste bat da. Aldizkari honek lokal baten beharra dauka. Urte bete da irrati bat erosi genuela eta garage batetan dago hautsa biltzen!! Lokala behar dugu, udalak eman ala ez. Askotan eskatu dugu (idatziz) Mari kaleko 3. solairua (urte bete hutsik daramana) eta erantzun digute beste prioritate batzuk daudela, zein prioritate?

Alokatzen ere saiatu gara, bainan ez dugu leku egokirik lortu, eta bitartean entzungo dugu gazteok eguna kalean pasatzen dugula denbora alperrik galtzen. Ba eman diezagutela leku bat gure mobidak antolatzeko!

KALARI TABERNA JATETXEA
* Eguneko menua
* Plater konbinatuak
* Kaxuelak - Otartekoak
Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA

xirula
ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIAK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA
TELEBISTA
BIDEO
HI-FI
Erribera kalea, z/g
Tel. 861705
20750 ZUMAIA

NATUR TALDEA: ZUMAIAKO INGURUNEAK ZAINTZEN

Zumaiako Natur Taldea, Zumaian aurki ditzakegun ingurune natural garrantzitsuak defendatu, kontserbatu eta beraien ezagumendua herrian zabaltzeko sortu zen taldea da.

Zumaiako Natur Taldea



Hegazti ugari hurbiltzen dira Zumaiara urtean zehar.

Azken sei urte hauetan, gure ekintzak, era askotakoak izan dira, eta hobeto ezagutu gaitzazuen, menu txiki bat aurkeztuko dizuegu.

Hegaztien zentsua

Urte guztian zehar, eta migrazio garaian bereziki, udaberri eta udazkenean, irteera batzu egiten ditugu, inguru hauetara hurbiltzen diren hegaztiak edo Zumaiako ingurunea bizitzeko aukeratu duten hegaztiak identifikatu eta kontatzen ditugu.

GIAM (Grupo Ibérico de Aves Marinas), SEO (Sociedad Española de Ornitología) eta Itsas-Enara ornitologo taldearekin lankidetzan, datuak jasotzen eta ordenatzen dira 1990etik hasita egiten den Gipuzkoako ornitologi urtekaria prestatzeko; bertan ikus daiteke Urolako ibaiak duen garrantzia Kantauri aldean.

Natur Ihardunaldiak

Gabonetan Natur Ihardunaldiak prestatzen ditugu 1989a ezkeroztik. Forondan eta Profesional Zaharrean erakusketa ezberdinak ikusi ahal izan dira, ingurugiroa orokorrean hartuz, eta Zumaian gertatzen denari garrantzi berezia emanez.

Itsas bazterretako ekosistemak, zaborraren birziklaketa, fosilak, itsas biologia edo Amazonetako herriak izan dira azaldu ditugun gaietariko batzuk.

Azterkosta

Urriaren bukaeran 1987-tik, Europa osoko milaka pertsona, kostaldera hurbiltzen dira Coastwatch Europe burutzeko. Ekintza hontan, eskola eta kolektiboetako talde ezberdinak, kostalde osoan zehar ibilaldiak egiten dituzte, bertako ezaugarri geologiko eta biologikoak apuntatuz edo azal daitezkeen kutsadura arazoak apuntatuz. Datu hauek Irlandan prozesatzen dira, eta informazioa urtero bidaltzen da Europako konseilura bere ezagutzarako.

Euskal Herrian, Coastwatch hau, Azterkosta izenpean burutzen da. Hirugarren urtea izango da Zumaian ekintza hau egiten dena, hemen ere lantzen delarik, liburu bat argitaratuz emaitzak jakinarazteko. Zumaian, eskola guztiek, Gazte Batzordeak eta gure taldeak ere parte hartzen du behatu beharreko inguruen zatiketa eta banaketa bat eginez, Debatik hasita Getaria-raino (20 Km. dira kostalde lerroan).

Natura irteerak

Zumaian aurkitzen diren habitat ezberdinen ezagutza eta interpretazioa dira gure helburu nagusiak. Zenbait irteera egin ditugu, padurara, dunetara, Artadira eta kostara, parte hartze handiarekin beti ere.

Une hauetan, irteera batzuk prestatzen ari gara, hegaztiak ikusi eta behatzeko, beraien udaberriko iparralderantzko pasagunean.

Gai guzti hauek interesatzen bazaizkizue edo beste zerbait proposatu nahi baduzue, Forondan galde ezazue gutaz. Ahal izanez gero behintzat Ostiralero bildu ohi gara.

KABI KAXAK EGITEN

Kabi kaxak erraz aurki ditzakegu, loradendan eta abereentzako denda berezi gehienetan. Hauek forma, neurri eta diseinu desberdinetakoak izan daitezke. Badirudi, kaxa hauek gizakiak baino hegaztiak gehiago erakartzen dituztela, kaxa hauetako gehienek ez bait dituzte kabialdi ziur eta eroso batetarako beharrezko baldintzak betetzen. Hona hemen arrakasta izan dezazuen aholku batzuk:

/ Aukera ezazue ondo egur mota. Ez itzazue "aglomeratuak" erabili, berehala ustelduko bait lirateke. Beraz, beti erabil itzazue hezetasunaren aurkako egur gogorrak, pinu, lentxun eta abar. Ez inoiz egurra lijatu, hau ez bait dute atsegin, era honetara ezin bait dira kabiari heldu. Egurraren lodiera gutxi gora behera 2 zmtakoa. izan behar da giro egoki bat lortu ahal izateko kabiaren barnean.

/ Zulo zehatz bat egin ezazue. Zuloak borobila izan behar du. Kabi kaxaren garrantzitsuena zuloa da, eta honen diametroa funtsezkoa, txori mota bakoitzak bere ezaugarrien arabera neurri ezberdinetakoak behar bait ditu.

/ Ez itzazue kaxak kolore biziekin margotu, kolore apalak hobeto dagozkie, ez bait dira horren nabariak.

/ Altuera egokian jar itzazue kaxak. Hiru eta sei metroren bitartean jarri, eta ez adar gainetan (gogora ezazue abere gehiago ere badagoela basoan). Hezetasunarekiko joera duten zuhaitzak (pagoa adibidez) baztertzen saia zaitezte. Egokiena kaxa hauek zuhaitzetan zintzilikatzea da.



Honelakoak izan ohi dira kabi kaxak.

TXORI MOTA EZBERDIN BATZUEN KABI ZULOEN TAMAINA

Amilotxa (Herrerilo común)	27 edo 28 mm.
Pinu kaxka beltza (Carbonero garrapinos)	27 edo 28 mm.
Txano amilotxa (Herrerillo capuchino)	27 edo 28 mm.
Tximutx kaxka beltza (Carbonero palustre)	27 edo 28 mm.
Buztangorria (Colirrojo real)	34 edo 32 mm.
Kaxkabeltza (Carbonero común)	32, 33 edo 34 mm.
Garrapoa (Trepador azul)	34 mm.
Araba zozo beltza (Estornino)	45 mm.
Mozoloa/Hontza (Mochuelo)	7 zm.
Urubia (Carabo)	12 zm.

ILE APAINDEGIA
Herea Uranga
Etxezarreta, 19 20750 ZUMAIA
Telefonoa: 862342

BASADI
ALBAITARITZA KLINIKA
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
- ALBAITARIAK -
Basadi, 7 behea
20750 ZUMAIA
Tel. 143310
LARRIALDIAK
·24 orduetan
·Zeure etxean
·Telef. 900-282828
Abonatu zbkia: 247790

EUSKARAREN EGOERA ZUMAIAN

Asko poztu ginen Zumaian herri aldizkari euskaldun bat sortzear zegoela jakitean, beronek herritar guztioi eta herriko talde ezberdinoi eskeintzen digun aukera apartagatik. Honexegatik, ZORIONAK eta mila esker.

Euskal Herrian Euskaraz

Euskararen aldeko borrokan dihardugun talde honek, aldizkari honen txoko batetan herriko hizkuntzaren errealitate, arazo, kexa, etab. plazaratu nahi genituzke.

Honetarako beharrezkoa da Zumaian euskarak bizi duen egoera ezagutzea, eta horretarako, Eusko Jaurlaritzak atera berri dituen euskararen ezagutza datuetan oinarrituz, Zumaiari dagozkion datuak agertzen dizkizuegu.

Euskalduntze prozesuak honela jarraituz gero, euskararen desagerpena datorkigu, eta beraz, geurea dugu erantzunkizuna.

Ikus dezakegu lehenengo epealdian Zumaiako biztanlegoaren %7.3a euskaldundu zen bitartean, bigarren epealdian euskalduntze prozesu hau %1.3an bakarrik igo zela. Datu hauen aurrean zera esan dezakegu: 1981 urtean gizartean bizirik zeuden indarrak euskalduntze prozesuan emandako igoera sortarazi bazuten, indar hauen apaltzeak igoera eza ekarri dutela.

URTEA	EUSKARAREN EZAGUTZA
1981	%59.2
1986	%66.5
1991	%67.8

Hemendik aurrera, guztiak berdin jarraituz gero, eusakararen etorkizuna nolakoa izango den asmatzen al duzu?

Ondorioa garbia da. Euskararen etorkizuna denon esku dago.

Euskalduntze prozesuak honela jarraituz gero, euskararen desagerpena datorkigu eta honen erantzunkizuna geurea da. Beraz, euskara aurrera atera nahi badugu, guztion lana beharrezkoa da.

Euskararen berreskurapen prozesuan ezinbesteko papera jokatzen dute helduen euskalduntze eta alfabetatzeak, irakaskuntzak, eusakaren eguneroko erabilpena etab. Eta gure gain dago hauen garrantziaz kointzientziatzea, euskararen erabilpenaz motibatzea, irakaskuntza eusakalduna bultzatzea etab.; Beraz, guztion parte hartzeak zuzena izan behar du.

Bestalde, eragile garrantzitsu eta zuzenak dira baita komunikabide eta administrazioa, eta gure gain dago hauetan ere eragitea, berauei euskara bultzatzea eskatuz eta berauen euskalduntzea esijituz.

Euskara bultzatzeko eragin handia dute euskal irrati, irakurgai, antzerki, ikuskizun eta telebistak. Hitz batean, gure gizarteko komunikabideak.

Guzti honekin zer pentsaturik eman eta euskararen errealitatera hurbildu nahi izan zaitugu. Gai honek ardura pizten dizulakoan aldizkariko hurrengo aleetan euskararen egoeran sakontzen jarraituko dugu, berriro ere, hurrengo artikuluaren irakurle izango zaitugulakoan.

BALEZULO
INPORTATURIKO
ERROPA ETA ARTISAUTZA
INDIA- NIKARAGUA
GUATEMALA
Basadi, 5 ZUMAIA

JONE
OIHAL DENDA
Erribera kalea
Tel. 852337 ZUMAIA

MIREN
BAKAILOAREN - ETXEA
KALE NAGUSIA, 4 • TEL. 86 10 01 - 14 30 61
ZUMAIA

HAURTZAINDEGI BAT ZUMAIAN

Zumaian, betidanik izan da haurtzaindegi bat sortzeko nahia, baina arrazoi bat edo beste dela medio, ez dakigu ziur zergatik, oraindik ez da asmo hori burutu. Hutsune hau bete nahirik, proiektu bat egiteko erabakia hartu genuen, Zumaiak duen behar sozial eta kultural honi irtenbide bat ematearren.

Belen Aizpurua, Amaia Uranga, Arantxa Uranga

Haurren heziketarako egokia da haur eskola.

Gure asmoa, Zumaiako eta inguruko herrietako haurrentzat, leku egoki bat eratzea da, bertan, haurra bere lehen hiru urteetan, garatu, heldu eta leku egoki batean hasi dadin. Ideia honek bultzaturik, Zumaiako hiru hezitzaile tituludun espezializatu elkartu ginen haurtzaindegi proiektu hau sortu eta lantzeko.

Bestalde, hor dugu LOGSE (Hezkuntz sistemaren ordenamendu orokorraren Lege organikoa), zeinaren nahietako bat 0-3 urte arteko haurrak hezkuntz sisteman sartzea den. Honela, instituzio ezberdin eta udalekin lankidetza estu bat ezartzearen beharra aurrikusten da. Horregatik, gure ustez, beharrezkoa da egitasmo hau Udalaren laguntzaz gauzatzea.

Errealitate sozialari erantzun

Haur eskolak, heziketarako zentruak direnez, bere baitan hainbat instantzien bateratzea ematen dela esan behar dugu, hala nola Udaletxea, guraso, hezitzaile eta abar.

Argi dago, giza bilakaeraren eraginez, haur eskolen beharra nabarmentzen duten hainbat arrazoi daudela:

-Gaur egun gizon eta emakumeek egiten dute lana.

-Haurraren heziketa.

-Ikuspegi psikosozialak: ama ezkongabeak, arazodun gurasoak, arazodun haurrak, eta abar.

Azaldutakoa kontutan harturik, argi dago, haur eskola aukera egokia dela, gizartean ematen diren arazo guzti hauentzat.

Garapen pedagogikoa

Haurra, bera jaiotzen den une beretik, hezi daitekeen gizakia da, haurraren heziketa jaiotza egunetik hasten da. Bere lehen urteetan, familiak zerikusi eta eragin handia du bere heziketa hortan. Batzuetan pentsatzen da, haurtzaindegiak haurra ondo zaintzeko zentru bat dela, "asistentzi zentru" bat. Gure helburua hori baino urrunago doa. Guk, haur eskola kontzeptua, heziketa hitzaren definizioarekin erlazionatuagoa dagoela uste dugu, lan egiteko modu egituratuagoarekin eta beraientzat

Zer eskeintzen du?

-Programa pedagogiko bat edukitzea eta profesional egokiak.

-Higiene eta jateko ohiturak lantzen dituen programa edukitzea.

-Jolasa, dibertsio eta ikasbide bezala erabiltzea.

-Gurasoekin harremanak edukitzea.

-Instalazio egokiak, espazioa, garbiketa eta segurtasuna.

-Elikadura egokia, goxoa eta osasuntsua.

KOSTA GAS
GAS ETA KALEFAZIO INSTALAZIOAK
Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

expert
ELEKTROGAILUAK
Mertxe Aizpurua
expert eta Repsol-Butanoren Banatzaile Ofiziala

ETXE-ONA
Axular ibiltokia, 10
Telefonoak: 861397 - 861284
ZUMAIA

egokiagoa den heziketa proiektua bilatu nahian. Guzti hau, gurasoen laguntza eta lankidetzarekin eta haurraren zaintza egokia baztertu gabe.

Laguntza munizipala duen Haur Eskola

Proiektu hau burutzerakoan, haurtzaindegi bat nolakoa izan daitekeen aukera desberdinak ikusi eta aztertzerakoan izan ditugun informazio eta elkarrizketetan, egokiena udaletxearen laguntza duen Haur Eskola eraikitzea dela, pentsatzen dugu. Proiektu hau burutu ahal izateko era asko daude, baina denak aztertu eta zenbait aholku jaso ondoren, egokiena Udal laguntza duen Haurtzaindegia sortzea dela ondorioztatu dugu.

LOGSEren arabera (Hezkuntz sistemaren ordenamendu orokorraren lege organikoa), Hezkuntzak ziklo hau bere gain hartzen duenean garrantzi gehiago izango dute udalaren menpe edota lagundurik dauden haur eskolak.

LOGSEk haur hauen heziketarako baldintza batzu ezartzen ditu. Baldintza hauek kontutan harturik, eta Zumaiako herrian egokituz, kalkulo hauek atera ditugu:

-200 m^2 tako lokal bat beharko genuke, eta ondoan, kanpora irteteko atari bat duelarik.

-Gela bakoitzean hezitzaile bat egongo litzateke ume kopuru ezberdinekin (LOGSEren baldintza arabera):

.0-1 urteko umeak gehienez 8

.1-2 urteko umeak gehienez 13

.2-3 urteko umeak gehienez 20

Proiektu honen barruan egokia ikusi dugu ere inkesta bat pasatzea, jendearen asmo nahi eta beharrak ikusteko. Honetarako 200 inkesta bidali genituen, 1992-94 urte bitartean haurrak eduki eta edukiko dituzten emakumeei. Horietatik 102 jaso ditugu, emaitzak grafikoetan ikus daitezkeenak direlarik.

Emaitza hauek ikusita eta bestalde egin ditugun bileretan, agertu den jende kopuruagatik, ikusi dugu, herrian jende interesatu nahiko badagoela gai honetan.

Udalari aurkeztu zaio proiektu hau eta nahiz eta proiektuaren alde egon, ez dugu lortu bideratzea.

Gure aldetik aurrera jarraituko dugu lanean, eta eskertuko genuke ahal den laguntza guztia.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación kutxa

gooiy
HAUR JANTZIAK
Amaiako plaza, z/g
Telef. 860959
ZUMAIA

ITZURUN
KAFETEGIA
Itzurun kalea, z/g Telefonoa: 862124 20750 ZUMAIA

HAURTZAINDEGIA?

Montse Arana
Hezkuntza zinegotzia

Galdera hau bapatean botako bagenu ez lioke inork ezetzik emango. Baina erantzuna eman aurretik nola? non? ze errekurtsoekin? etab, aztertuko bagenu ez dut uste erantzun berdina izango genukeenik.

Zalantzarik gabe, gizarte batek zenbat eta zerbitzu gehiago eman, aurrerakoiagoa izango dela. Baina diru publikoarekin ari garenean eta batez ere, krisialdian bizi bagara, lehentasunak finkatu behar dira eta inbertsioak, gastuak egin aurretik, ondo aztertu eta pentsatu behar dira.

Ez dugu ahaztu behar irakaskuntza mundua prozesu batean sartuta dagoela: Erreforma (LOGSE) indarrean jartzen ari da, horrek suposatzen dituen aldaketekin bai irakaslegoari baita azpiegiturari dagozkionak ere: haur hezkuntza (0-3 , 3-6), lehen hezkuntza (6-12), bigarren hezkuntza (12-16 , 16-18). Guzti hori Hekuntza Sailari dagokio.

Momentuz, Hezkuntza Sailak haur hezkuntzaren (3-6 urte) 2. zikloa besterik ez du hartzen. Hala ere azkenengo kurtsoetan, neurri batean, 2 urteko umeen eskolarizazioa bere gain hartu du. Gure asmoa hortik dihoa, ez dugu baztertzen 0-2 urteko haurren eskolarizazioa (Hezkuntza Sailarekin hitzarmen baten bidez, ...) baina momentu honetan herriko planifikazioa egiteko dagoela, lokal egokirik ez dugunez, lokalak egokitzeko dirurik ez dagoenez eta ikusirik, haurtzandegiak duen kostoa ez dugu ikusten proiektu honekin aurrera egin dezakegunik.

Zalantza asko daude, diru publikotaz hitzegiterakoan konpetentziak ere zehaztu behar dira. LOGSE garatzen den neurrian jakin beharko genuke etapa hori (0-2 urte) nori dagokion betetzea, bestela, askotan gertatzen dena berriro gertatuko litzateke: Udalak bere gain hartzen duela bere konpetentzikoa ez dena.

Beraz, eta oraingoz, Zumaiako Udal Gobernu Batzordeak ez du garbi ikusten berari dagokionik Haurtzaindegiko zerbitzua eskeintzea. Dena den aurrera begira zerbait egingo balu zenbait puntu kontutan hartuko genituzke: lokal egokiak, zerbitzua lehiaketa publiko baten bidez ematea, Hezkuntza Sailarekin hitzarmena, ...

Haurtzaindegia beharrezkoa al da Zumaian?

AXIER KIROLAK
Ortega y Gasset, 2
ZUMAIA
Telefonoa: 862206

BASUSTA
ERRETEGIA
Mª Dolores Aizpurua
Pantxita Etxezarreta, 25
Telefonoa: 862073
20750 ZUMAIA

Foto Mertxe
Erribera Kalea, 6
Telefonoa: 86 17 07
Fax: 86 17 07
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)




AH.

ZUMAIAKO HERRIA INSUMISIOAREN ALDE

Pasa den martxoaren 3an Zumaiako lehendabiziko intsumisoa den Ismael Manterola Ispizua epaitu zuten Donostiako auzitegian. Hau zela eta, Gu Ez Goaz (Zumaiako Talde Antimilitaristak) elkartasuna adierazteko mozio bat aurkeztu zuen Zumaiako Udaletxean, ia talde politiko guztien onarpena jasoz.

Gu Ez Goaz.

Elkartasun adierazpen ugari izan zituen Ismaelek bere epaiketan.

Aipatutako mozio horretan azalten ziren puntuak , oraintxe irakurriko dituzuenak dira:

1. Gaur egun, gure gizarteak delitotzat hartzen ez duen honelako ekintzagatik gazte hau edo beste edozein epaitzea gaitzesten dugu.

2. Absolbatzea eskatzen dugu, bere intsumiso jarrerak ez bait du kondenarik merezi.

3. Gaur egun indarrean dagoen Soldadutzaren Legea eta lege honen arabera udalek bete behar dituzten zerbitzuak berehela deuseztatzea, eskatzen dugu.

4. Udal honek Kontzientzia Eragozpenari buruzko informazioa emateko eta apoiatzeko konpromezua hartzen du, zentru publikoetan hitzaldiak antolatuz (institutuetan, ikastoletan, eskoletan...), eta bereziki eta indibidualki, soldadutza egin beharrean dauden gazte guztiak informatuz, Gaztedi komisioaren bidez.

5. Hemendik aurrera herrian egongo diren intsumiso gutiei babesa eta elkartasuna adieraztea.

6. Udal honek ez du Ordezko Zerbitzu Sozialaren burutzea lagunduko, udal zerbitzuetan eragozleak hartzeari uko eginez.

7. Udalak edo bere menpeko erakundeek egiten dituzten kontratazioetan, haien langile izateko soldadutza edo ordezko zerbitzu soziala egina izatea ez da eskatuko edo kontutan hartuko.

8. Udal honek indarrean dagoen Kontzientzi Eragozpenaren Lege Erregulatzailea (L.O.C) eta O.Z.S.ak

ANA
ETXEKO ZAPIAK
Ignacio Zuloaga Enparantza
Telefonoa. 86 11 57
ZUMAIA

ARGIA
Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
ZUMAIA

SUKALDEKO
ALTZARIAK
DORNUTEGI
ARMAIRU ENPOTRATUAK
Basadi Auzategia, 10 behea
Telefonoa: 862051
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

askatasun ideologikoari buruzko eskubidea ez duelarik errespetatzen eta gizabanakoak duen berdintasunaren eskubidea zalantzan jarriz, eragozlea erabat diskriminatuz, guzti honen ondorioz Estatuko Gobernuari lege hau deuseztatzeko eskari publikoa egin zaio hemendik.

9. Mozio honen akordioak dagokion epaitegira bidaltzea, herrian intsumisoren bat epaitzen duten bakoitzean.

Bestalde, epaiketa egunean garbi ikusi zen Zumaiako herri guztiaren elkartasuna, eta bide batez idatzi hau aprobetxatzen dugu guztioi eskerrak emateko.

Hala eta guztiz ere, sententzia 4 hilabetetako kartzela zigorra izan dela esan behar dizuegu. Kontutan hartuta 12 hilabetetik beherako zigorrak jasotzen dituztenak ez dutela espetxera joan beharrik (antezedenterik ez edukiz gero), behin behineko askatasunean egongo litzateke, fiskalak ez balu errekurritu epaileak emandako sententzi hau. Orain Auzitegi Probintzialaren erabakiaren zain egon beharko dugu, beste lau edo bost hilabete. Hurrengo atalean informazio hau berri gehiagorekin zabaltzea espero dugu.

Ismaelen insumisio grina ez dator hain txikitatik.

ETXE-TRESNAK
GAJATE
K. NAGUSIA 12
☎ 861315
TIEN 21

NIKOL-ENEA TABERNA
Amaiako plaza
ZUMAIA
Tfnoa: 861440

TXALAPARTA
OPARIAK
Angeles Sorazu, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)
Telf. 14 30 89
Fax. 43 06 37

SURF DENDA
Taosa
* Bainujantziak
* Surfeko tablak
* Toallak
* Erropak
* Poliesterrezko plastifikatzeak
* Erropetako serigrafia
Erribera Kalea, 17 - 20750 ZUMAIA

ZUMAIAKO INSTITUTUAREN X. URTEMUGA

1983-1984 urteetan irakasle taldetxo bat eta bi ikasle talde ideia argi baten inguruan bildu ziren: " Ahalik eta erantzun edukatibo zabalena ematea Zumaialdeko gazteei". Une horretan hasi ziren Zumaiako Institutuko hezkuntza lanarekin.

Baleike

Gaur, hamar urteren buruan, jadanik 40 irakasle eta 400 ikaslerekin, bizirik dirau ideia horrek; eta horixe da berrikuntza edukatiboen motorea oraintxe bertan, gerora ere izango den bezala.

Urteak aurrera joan ahala aldatuz joan da heziketa -eskaintza: Lanbide Heziketatik I.E.E.ren 1. Ziklora, I.E.E. ko 2. Ziklora (Batxilergoak) eta III. Mailako Modulo Profesionaletara (Enpresako Administrazioa, eta Sistema Automatiko eta Progamarriak), beti ere ahal den esparru zabalena hartuko duen heziketa proiektua bilatu nahian, horrela unibertsitate arloa eta mundu tekniko-profesionala bere barruan bilduz.

Bi Arazo

Ia eguneroko burruka izan da, eta gainera sail guztien aurrean eramanik, Zumaiako Institutuko irakaslegoa elebiduna izatea, Zumaialdeko egoeragatik eta Institutu barruko eguneroko lanagatik. Ez da nahikoa orain arte lortutakoa, eta ezta nahikoa izango harik eta Zumaiako Institutuko irakaslegoa elebidun izan arte, horixe baita Zumaiako egoera eta horrexen islada izan behar du bertako institutuak.

Gaur egun, ikasleak B eta D modeluetatik datozenez Zumaiako Institutura, modu praktikoan konpondu behar izan da arazoa, sortzen joan diren zailtasun guztiak arinduz eta gaindituz, ahalik eta B modelutik etorritako ikasleek Irakaskuntza Ertainetan jasotako formazioa modelu egokikoa izan dadin. Hori indarrean jarri eta urte gutxira emaitza ezin hobeak jaso dira, lortu egin baita B modeluko ikasleak D modelura pasatzen joatea, aurrerabide logikoa baina oso maiz gertatzen ez dena. Eta iritsi da berriro ere aurrera egiteko garaia, O.H.O.n gertatutako dinamikari erantzunez, D modelu bakarrerantz.

"D modelu bakarrerantz aurrera egiteko garaia heldu da".

Horrekin batera, beste arazo nabarmena leku urritasuna da. Zumaiako Institutua 1. graduko Lanbide Heziketa Institutu gisa jaio zen, horretara bideratutako instalazio, leku eta antolaketarekin.

Gaur egun Zumaiako Institutuan beste bi maila ematen dira (I.E.E.ren 2. Zikloko Batxilergoak eta Modulo Profesionalak), halere lehengo espazio beraren barruan. Garai batean Zumea ikastolak gela batzuk zituen bertan eta estali gabeko atari bat zegoen. Orain gela guztiak Zumaiako Institutuaren esku daude eta estali egin da ataria, horrela lau gela lortuz, eta aurten Zumaiako Institutuko talde batek bere klaseak Julene Azpeitia Ikastetxe Publikoan hartzeraino heldu dira.

Heziketa hobetuz

Gero eta handiagoa izan da heziketa proiektuaren onarpena, eta horren erakusle da ikasle gehikuntza, hasera batean zumaiarrak, baina urteen poderioz aldameneko herrietako ikasleak izan dira (Zestoa, Azpeitia, Azkoitia, Zarautz, Getaria, Aizarnazabal eta Itziarkoak) gureganatu direnak, gero eta kopuru handiagoan.

Zumaiako Institutuan aritutako ikasleen gaitasuna adierazten du beren ikasketen jarraipenak. Horrela, unibertsitatera sartzeko frogak (selektibitatea) ikasle guztiek gainditu dituzte ekaineko deialdian: 131 ikaslek, hain zuzen ere.

Irteera unibertsitarioen aukera egin ez zutenentzat, selektibitatea gainditurik edo bertan parte hartu ez zutenentzat, Zumaiako Institutuak III. Mailako Modulo Profesionalak


LIBRUDENDA
AIZPURUA
OPARIAK
Aita-Mari Auzategia, 17
Telefonoa: 861569
20750 ZUMAIA

Ford
Azkue Autoak
Estazioko kalea, 19
20750 ZUMAIA
Telefonoa: 861433
Fax: 861067

IXIMAK
ILE APAINDEGIA
DEPILAZIOA
SOLARIUM
Etxezarreta, 21
Telefonoa: 860449
20750 ZUMAIA

antolatu ditu; horrela, batez ere teknikoa den irakaskuntza batean oinarritzeaz gain, enpresetan praktikak eginez eta lan proiektu bat buruz, posible egin zaie herriko eta inguruko lan mundura biltzea.

Ez dira ikasleak izan Institutuaren ardura bakarra. Zumaiako Institutuak hainbat elementu tekniko dauzka (materialeak, instalazioak, irakaslegoa, etab.) ikasleen mesederako bakarrik ez direnak. Lanean diharduten edo langabezian daudenen mesederako ere izan behar dute. Horregatik, sei hilabetero, Zumaiako Institutuak ikastaroak antolatzen ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan.

Eta ikuspegi itxaropentsu hau eduki arren, hain emaitza bikainekin, Zumaiako gazteen erdia herritik joaten da Irakaskuntza Ertainak ikastera.

Aurrerantzean hala ere, gogotik ahaleginduko dira irteera horiek ebitatzeko, eta guztion laguntzari esker ipiniko dituzte hementxe ikasketak, kanpora doazenen kopurua urrituz.

"Zumaiako gazteen erdia herritik joaten da Irakaskuntza Ertainak ikastera"

Hori lortzeko aukera aproposa ematen diote L.O.G.S.E. Batxilergoek, hauek elkartu egingo baitituzte gaur egungo L.H., I.E.E. eta B.B.B. ikasketak. Eta Zumaiako Institutuak, gaur egungo ikasketak alde batera laga gabe eta L.O.G.S.E Batxilergo horien ezarketan parte hartuz, Zumaiara ekarri nahi du Batxilergo Zientifikoa eta Humanistikoa.

Modu horretan aukera multzo zabala eskaintzen zaie herriko gazteei, hainbat karreraren bidea irekiz, eta aldi berean, Zumaiako Institutuan bertan bi urteko ikasketa tekniko-profesionalak egiteko aukera emanaz.

Ikusi bezala, beraz, eskaintza zabal, ugari eta serioa dago, testuinguru horrek bihurtu behar duelarik Zumaiako Institutua herria urte askotxoan eskatzen ari den Irakaskuntza Ertainetako zentroa.

X. urteurrena ospatzeko mahai-inguruak, antzerkia, bazkaria etab antolatu zituzten institutoko jendeak.

Festa giroa nagusitu da ospakizunetan

SEXUAN ERE, USTEAK ERDI USTEL

Sexuaren inguran dauden mito, gezur eta astakeriak ugariak dira.

Garai bakoitzak bere mito sexualak ditu, gizartearen balore moralak aldatuz bait doaz. Gaur egungo mito gehienek aurreritzi faltsu, eta batez ere gure gizarte honetan erotismoari buruz ematen den informazio manipulatuan dute beren jatorria.

Baleike

Sexuaren inguruan ditugun usteak eta mitoak ugari badira, eta esaten diren astakeriak beste horrenbeste, onena izango degu hauetako batzuk apurtzen hastea.

Aldi berean izandako orgasmoa da harreman sexualaren helburua:

Astakeri bat da pentsatzea gizonezkoak bere eiakulazioari eutsi behar diola emakumea bere klimaxera iritsi arte, biek orgasmoa batera izateko. Hau ia ezinezkoa da, oso zaila bait da hori kontrolatzea. Biek dominstiku batera egitea bezala litzateke. Hala ere, honek ez du esan nahi gizonezkoak bereari bakarrik ekin behar dionik; alderantziz, sexu harreman egoki bat lortzeko, komenigarria da aurre-estimulazioa egitea, batez ere emakumearengan, honek, penetrazio soilarekin ez bait du behar duen exitazio maila lortzen..

Haurrak dira aurreritzirik gabe bizi diren bakarrak.

Orgasmoa batera izatea, biek dominstiku aldi berean egitea bezain zaila da

Gizakia heterosexuala da izatez, eta homosexualitatea gaixotasun bat da:

Uste honen aurka badago teoria bat: Gizakia heterosexuala da hezkuntzaren indarrez, eta gizartearen balore eta egiturak bultzaturik. Horrela umeak bi urte dituenean hasten da jasotzen ezberdintasun sexualei buruzko informazioa. Hiru urtekin bere sexuaren kontzientzia hartzen du, bere aita edo amarekin identifikatuz. Bost urterekin ezagutzen ditu bere organoak, baina ez zaio gehiegi interesatzen. Zazpi urtez jakinmina sartzen zaio, etengabe galderak eginez. Zortzi urte dituenean da beste sexuarekiko erakarpena sentitzen duenean. Bi sexuen arteko ezberdintasun fisikoak nabarmenak izateak, ez du baldintzatzen sexu berdinekoen arteko sexu harremana. Harreman hauek baldintzatzen

Garai informática
Basadi Auzategia, 10-A atzean Telefonoa: 862228 ZUMAIA

TXOKO TABERNA
Artadi auzoa
ZUMAIA

dituenak gizartearen baloreak dira.

Afrodisiakoek sexu ahalmena handitzen dute:

Jakitunek esaten dutenez ez dago ahalmen sexuala handitzen duen janari edo edaririk, nahiz eta betidanik gizakia hauen atzetik ibili. Afrodisiakoen indarra, bereiengan dugun sinismenean dago soilik. Hala ere, egia da zenbait drogek estimulazioa handitzen dutela, baina luzera, efektu guztiz kontrakoa izan daiteke.

Afrodisiakoen indarra, beraiengan degun sinismenean dago soilik

Gizonak emakumeak baino sexu behar handiagoa du:

Ideia hau guztiz faltsua da. Ezberdintasuna ez dago beharretan, jarrera eta espresio bidetan baizik. Gizonezkoek ez dute emakumezkoek baino ahalmen handiagoa sexu harremanak edukitzeko; alderantziz baizik. Mito honek, gehienek bezala, gizarteko tabuetan du jatorria.

Sexua gazteentzat bakarrik da:

Plazerra sentitzeko beharra, sexu beharra, gizakiaren ezaugarri bat da jaiotzen denetik hiltzen deneraino. Beraz sexua bizitzaren edozein sasoian praktikatu daiteke. Noski, denbora ez da alferrik pasatzen, baina egokitzea besterik ez dago. Gainera esaten den bezala, esperientzia gradu bat da, eta sexu kontutan are gehiago.

Sexu ahalmena, zakilaren neurriaren araberakoa da:

Hau gazteen artean askotan dagoen aurreritzi bat da, guztiz faltsua. Zakil handi batek ikustean edo ikutzean sor dezaken exitazioa alde batera utziz, ez du zakil txiki batek baino exitazio gehiago sortzen penetrazioan, maginaren kanpoko herenak bakarrik bait du sentsibilitatea. Hau da, emakume batek exitazio berdina jasotzen du 2 edo 3 zentimetroko zakil betekin edo neurri normaleko batekin. Zakil baten neurri normala 8,5 eta 10,5 zm artean dago. Hala ere, tentetzean, txikia bada gehiago luzatuko da normalean.

Hauek dira gaur egun jendearen artean dauden zenbait uste. Baina, esaera aprobetxatuz, sexuan ere usteak erdi ustel.

NORBAITEK ESANA

- "Emakumeei, danborrei bezala, noizbehinka egurra ematea komeni da". (Noel Coward)

- Naturak emakumeak prestatu ditu, hauek gure esklabuak izan daitezen... Gure jabegoa dira... Geurak dira, zuhaitz bat lorazainarena den bezala. Ze idei eroa berdintasuna eskatzea emakumeentzat! Emakumeak umeak sortzeko makinak baino ez dira". (Napoleon Bonaparte).

- "Emakume batekin arazoak konpontzeko bide bakarra, bere gainean jartzea da, eta dena primeran joango da". (Lee Marvin).

UMOREA

FRONTON
TABERNA
E. Gurrutxaga plaza
Tel. 862172 ZUMAIA

ZARAUTZ & ZUMAIA
Surf
Torre Luzea, 2
Tel. 83 50 24
20800 ZARAUTZ
Erribera, z/g
Tel. 86 23 69
20750 ZUMAIA

EGUZKI
PUB
KOKTEL BEREZIAK
Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

Fran Aizpurua: " Gero eta jende gehiagok egiten du kirolen bat herrian"

Urtetan lan eta lan dihardu Fran Aizpuruak herriko kirolaren izenean. Urte guzti hauetan polideportiboan izan degu eguneroko ogia irabazten eta honetaz gain futbol entrenatzaile modura ere badabil, besteak beste. Herriko kirolari buruzko hainbat gauza kontatu dizkigu gizon nekaezin honek

BALEIKE



Entrenatzaile baino polikiroldegian lanean aritzea nahiago du.

- Nola baloratuko zenuke urte guzti hauetan polideportiboak herrian bete izan duen funtzioa?

-Haseran pista bakarrik zuen polideportiboak, baina denborarekin gimnasioak, karate eta judo egiteko lekuak egin dira, baita aldagela gehiago ere. Lehen urtetan jendeak polideportiboa gutxi erabiltzen zuen, baina pixkanaka lortu degu erakartzea, zerbitzu ezberdinak eskeiniz.

-Badirudi, jendea gero eta gehiago kezkatzen dela bere osasunaz. Hau somatu al dezu polideportiboaren erabileran?

-Bai, asko. Batez ere muskulazioko gimnasioa jarri dugunetik igarri degu; argi dago jendeak gehiago zaintzea nahi duela.

"jendea bere burua gehiago zaintzen hasia da."

-Esan dezun bezela, haseran pista bakarrik, gero gimnasioak, squash-ak eta sauna. Zer izango da polideportiboak eskeiniko duen hurrengo zerbitzua, igerilekua, agian?

-Momentu hauetan masaje zerbitzu bat sortzeko asmoa degu. Igerilekua berriz... badakit proiektu bat eginda dagoela eta berau Diputaziora bidali zela; orain beraien erantzunaren zai gaude.

-Zer deritzozu herriko kirolaren egoeraz?

-Federatuetan maila oso altua dago, eskubaloian eta piraguismon adibidez. Federatu gabeetan jendea

EGOKI
ERLOJU DENDA
E.Gurrutxaga plaza, 6
ZUMAIA

ERTZ
INFORMATIKA
* KONPUTAGAILUAK
* OFIZINAKO TRESNAK
* AKADEMIA
Mendaro Marinela, 3 behea
Telefonoa: 143395 ZUMAIA

LANDARE
LOREDENDA
Baltasar Etxabe, 5
Tel. 862472 ZUMAIA

korrika asko ibiltzen da, honetarako polideportiboa asko erabiltzen dutelarik. Guk antolatutako ekintzetan ere jende dexentek parte hartzen du. Era eta adin guztietako jendeak egiten du kirola.

-Kirolak orduan eboluzionatu egin du federatu eta afizio modura?

-Bai, bai. Lehen kirola federatuek egiten zuten batez ere; orain federatu eta federatu gabeak jarduten dira.

-Emakumezkoak ere poliki-poliki ari dira animatzen kirola egitera. Lehengo "konplejoak" alde batera utzi, eta mentalidade aldaketa bat ematen ari dela dirudi, ezta?

-Dudik gabe. Mantenimenduko gimnasian bakarrik ehun emakume baino gehiago daude, eta azken urteetan nesken talde berriak sortu dira. Beraz, mentalidadea aldatzen ari dela esan daiteke, kostatzen ari bada ere.

-Nahiz eta herriko kirol batzuk oso emaitza onak lortu, jendeak ez du gehiegi erreparatzen hoietan. Zergatik?

-Gaztetxoek txikitatik ezagutzen eta praktikatzen dituzte kirol hoiek, piraguismoa eta eskubaloia adibidez, herrian hain jarraituak ez diren kirolak. Helduek ordea, emaitza onak lortzen dituztela jakin arren ere, oraindik ez diete garrantzi gehiegirik ematen, txikitan ez bait dituzte ezagutu. Hala ere, nik uste det denborarekin jendearengan kirol hoiek interes gehiago piztuko dutela.

-Beraz, futbolak errege izaten jarraituko du gaizki edo ondo ibili?

- Oraingoz bai, dudik gabe.



Fran izan dugu azken urteotan polikiroldegiko arduradun.

TOMAS
Menu eta Karta zerbitzua
plater konbinatuak - Pintxoak
Otartekoak - Kaxuelitak-
TABERNA JATETXEA
E. Gurrutxaga plaza
Tfnoa: 861916
ZUMAIA

Maite Irureta
JANTZIDENDA
Txomin Agirre z/g
Tfnoa: 862449
ZUMAIA

Milagros
Ile apaindegia
Foruen enparantza, 13
Tfnoa: 861160 ZUMAIA

ZUMEA TABERNA
Erribera kalea, 2
Telefonoa: 861125
ZUMAIA

ELVIS, ROCK & ROLLAREN MITOA

Nahiz eta gazteek gaur egunean gehiegi ez ezagutu gizon hau, jakin badakite nolako garrantzia izan zuen Elvis-ek egindako lanak. Gure garaiko rockeroak gizon honetatik hartutako egitura ereduak jarraituz, oraindik bizi-bizian daukagu musika era hau.

Imanol Manterola

Lehen zenbaki honetan, musikaren historian zeresan handia eman duen gizon batekin hasiko gara, Elvis Presley handiarekin hain zuzen.

1935ean jaio zen Tupelon (Mississippi). Lan gutxiko garaia izanik, Presley familia lekuz aldatu beharra izan zuen, hala nola, Elvis-ek bere haurtzaroa Menphis-en (Tennesse) igaro zuen. Garai hartako pop musika zuria zerbait lasaia bihurtu zen eta erakargarriagoa jende helduarentzat gazteentzat baino. Elvis, beltzen musika entzuten hasi zen, Rythm and Blues-a (beltzek egindako musika), bere indar guztiarekin gizon zurien artera eraman zuelarik. Musika mota hau ez zegoen orkestaturik pop zuria bezala, ez zituen testu burutsurik, musika hau oinarrizko sentimenduen adierazpen soila zen.



Elvis Presley izan genuen Rock and Roll-aren erregea

Rock and Roll hitza ekintza sexuala azaltzeko bi eufemismo beltz dira. Horrela, buruzagi gazte batekin, Teenagers taldearen matxinada hasia zegoen jadanik. Baina igotzean bezain indartsu erori zen Elvis. Musika disko batzu grabatu ondoren, zinema munduan sartu zen. Elvisek lortu zuen fama handi horretaz baliatu nahian, gizon hau esplotatzen hasi ziren eta berak zuen adimen guztia mespretxatu eta bere irudia saltzen hasi ziren.

60. hamarkadaren bukaeran, Elvis musikara bueltatzen saiatu zen, baina gaztaroan izan zen gazte ausart eta iraultzailearen irudia desagertzen joan zen. 1972an, bere emaztea zen Priscillarekin dibortziatu eta gero, bazirudien akabatuta zegoela. Presleyk beste bizitza bat hasi zuen, drogak sorturiko ametsezko mundu bat. Bere drogak errezetatuak izaten ziren (Placidyl, Valium, Eskrotol e.a.).

Gauzak horrela, kontuak berehala konpondu zituzten Elvisek jende aurrean berriro ez kantatzeko.

Bere bizitzan zehar erabili zuen gizonak, Parker koronelak alegia, ondo prestatu zuen guztia berak nahi zuen irudia eman zezan. Jendeak era honetan ez zuen ezer jakingo bere heriotza arte. Zurrumurru asko daude Elvis bizirik dagoela esaten dutenak. 1977ko abuztuaren 16a baino lehen, behin baino gehiagotan hiltzeko zorian izan zen, baina fetxa honetan hil zen. Berekin izandako pertsonek sarritan errepikatzen zuten Elvis-ek bere burua hil nahi zuela, eta modu horretan hil zela. Benetan, amaiera triste eta mingarria.

KABI
TABERNA
P.Etxezarreta, 15
Tfnoa: 143379
ZUMAIA

Zerbitzu Ofiziala
ZUMAIA AUTOAK
Juan Belmonte, 45
ZUMAIA
Telefonoa: 861485
Fax: 143143

IHINTZA
TABERNA
Ortega y Gasset,3
Tfnoa: 860472
ZUMAIA

INPERNUPE ELKARTEA
Erribera kalea Telefonoa: 861523
ZUMAIA

BALEIKE HERRI ALDIZKARIA, PUBLIZITATE BIDERIK EGOKIENA ZURE NEGOZIOARENTZAT

Hilabete baterako prezioak:

* Modulo bat (45x60 mm)..... 1.200 pta
* Bi modulo..... 2.400 pta
* Hiru modulo..... 3.600 pta
* Barneko orrialde osoa..... 20.000 pta
* Barneko orrialde erdia..... 10.000 pta
* Azken orrialde osoa..... 25.000 pta
* Azken orrialde erdia..... 12.500 pta

Interesatzen bazaizu edo informazio gehiago nahi badezu, **860422** (Amaia) telefonora deitu eta pasako gera zurekin hitzegitera.

Opari artikuluak
algorri
Lurrindegia
Erribera kalea, 5 ZUMAIA Telefonoa : 862398

JEMAR
LOREDENDA
LANDAREAK
LOREAK
HAZIAK
ZERAMIKAK
Erreka, 1 Telefonoa: 860375
20750 ZUMAIA

Jesuskoa Jatetxea
Ttoca 86 17 39 • Oikia Zumaia

SORGINA
ARTISAUTZA
Baltasar Etxabe,2 behea 20750 ZUMAIA
Telefonoa: 143229

JOSAKRIS
OINETAKOEN
KONPONKETA
Ortega y Gasset, 2
Telefonoa: 862025
20750 ZUMAIA

LUBAKI BANDA ZUMAIAN

Lehengo Maiatzak 14an etorri zitzaizkigun, Gazte Batzordea eta aldizkari honen eskutik, Oxford zaharra poesia giroz betetzera. SUSA aldizkariko 31 zenbakian biltzen diren lanetan oinarritutako emanaldia eskeini ziguten. Lau lagun inguratu ziren: Harkaitz Cano, Xabier Gantzarain, Garikoitz Berasaluze eta Asier Serrano.

Literatura oso gustokoa duten hamalau partaidek osatzen dute LUBAKI BANDA eta oso gazteak dira denak, 18 urte ingurukoak. Lehiaketa ugari irabazitakoak dira gehienak eta hauetariko bi lagunek, bakoitzak bere lehen poesia liburua argitaratzea lortu dute jadanik. Aldizkarian ageri den manifestuan aipatzen duten modura "atzazalez urratzen dugu bidea"; atzetik datozen literaturzale gazteei bidea erakusten aritu dira eta, era berean, poesia errezitaldiak modan jarri dituzte berriz ere, batez ere gazteen artean. Gure aldetik, jarrai dezatela lanean orain artean bezela, eta goza ditzagun besterik gabe Oxford-en oparitu zizkiguten aleetako batzuk.

1600

SEGUNDU asko ditun mila eta seiehun segundu
aulki elektriko batean zain egoteko adibidez
lore batzu eskuan ditunala zutik adibidez
zaila dun muxu bakarra malgutzea hain luzaro maite
metro asko ditun mila eta seiehun metro
batez ere gaur eta kale urtu hauetan ihesi edo
hire botanikan murgilduz gauaren barne lorategietan
arratsaren zirujia ebakiz rosa rosae
mila eta seiehun arratoi samaldan
suizidatu hituen atzo Pekinen
maitasunaren hiru osagaiak batzerakoan
proportzioetan ondo asmatu ez zutelako maite
asko ditun mila eta seiehun arratoi
zorionaren zutabeak hortzez kurruskatzeko
ez al zain hala iruditzen maite?
kearen aritmetika urruna estazioetako oholetan
esandako gezur guztiak kontatuz ere
mila eta seirehun gezur
gezur asko ditu
eta ez dun lain elurra abenduko murru izoztuetan
gabardina tirokatuaren odola jelatzeko
matrailaz baheztatua euria
matraileta mila eta seirehun berun pusketa
berun pusketa gehiegi direla iruditzen zaidan

Harkaitz Cano

EDERTASUNA

hil dun
hil diate
hil diagu
berdin dun ez zegoen edertasunik
hik hil al dun zizpuru batez?
orain ezibestekoa dun nagusi
hik akatu al dun burkoaren gainean
mundu bat erruten ari huen inurria?
berdin duk hik ez ditun inurri guztiak akatu
orain langarra zetorren umeen gosarian
gauak zenbat begi isuri dituen jakitera
bakardadea oihartzunez agurtzera
burua hile zuriz garbitzera
arrats gorri haizetsuak trukatu dizkinate
inork eragozten duen biharko eurijasa

Xabier Aldai

Lubaki banda hamalau, gerturatu eta lau

POE, RIMBAUD ETA BUKOWSKI

ZAINAK moztuko dituqu
eta goazen parkera
poemak irakurri
eta eromenaz horditzera.

Herra. Amorrua. Gorrotoa.
Zakurrak hurreratu dira sutara.
Erre eginen dira,
suaren distirak itsututa.
Rue Morquetik dator Edgar,
pattarra zarraztaka eztarrian.
Herra. Amorrua. Gorrotoa.
Infernuan erre poeta
dator sutondoan horditzera.
Garretan harrapatua dago Arthur.
Herra. Amorrua. Gorrotoa.
Taberna zantarretik hirugarrena;
ahots zakarrak oihu egin du:
Ekarri pattarra.
Charles ez dago bakarrik.
Denok batera hordituko gaituk.

Horditu eta erre.

Garretatik atera dira.
Herra. Amorrua. Gorrotoa.
Gizarteari zor dioguna

Xabier Gantzarain

Auto - Konponketak
ELKAR
PEUGEOT
Estazioko kalea
20750 ZUMAIA
Telefonoa: 860201

BIZKOR
FOTOKOPIAK
* Enkuadernaketak
* Plastifikatzeak
* Fax publikoa
* Bulegoko materiala
Basadi, 14 behea
ZUMAIA
Tfnoa.
Fax: 143120

erakusketak

Erakusketak Foronda Kultur Etxean izango dira, eta ondorengo ikustorduen barru:

Egunero 6,30etatik 8,30etara

m **KARMELE SARASUA**-ren pintura bilduma izango da erakusgai, Ekainaren 3tik 19ra bitartean.

ZUMAIAKO VI. ARGAZKI LEHIAKETAra aurkeztutako lan onenen bilduma ikusgai izango da Ekainaren 25etik Uztailaren 10era..

Zumaiako argazki elkarteak udalaren babesean antolatzen du urtero lehiaketa hau. Oinarriak Foronda Kultur Etxean eska daitezke, baina puntu garrantzitsuenak bertan azaltzen dizkizuegu:

1. Edozein gipuzkoarrek har dezake parte, bakoitzak gehienz hiru argazki aurkeztuz.
2. Txuri-beltzeko argazkia, laborategiko edozein teknika onartzen delarik; gaia librea da, eta aurkezteko gutxieneko neurriak: 18 x 24 zm.
3. Ekainak 17a baino lehen Forondan aurkeztu behar dira, egilearen datuak kartazal itxi batean erantsiz.
4. Epaimahaiaren erabakia eta saribanaketa ekainak 25ean izango dira, eta egun bertan zabalduko da argazki onenen erakusketa ere.
5. Sariak honako hauek izango dira:

1goa: 45.000 pzta.
2.a: 35.000 pzta.
3.a: 25.000 pzta.
Bertako onena: 15.000 pzta.

Lehiaketan parte hartzen duen bakoitzak sari bakarrerako aukera izango du.

Sarituak izan ez diren lanak erakusketa bukaeta eta ondorengo hiru hilabeteen barruan jaso ahal izango dituzte egileek.

MENDIKO ZINE ZIKLOA

KUTXA fundazioak eskeinita, Aita Mari zineman Mendiko zineaz bi emanaldi eskeiniko dira, iluntzeko 8retan.

Publiko guztientzako irekia den kultur eskeintza hau gipuzkoar mendigoizale talde oparoari zuzendurik dago funtsean. Horrexegatik, Donostian eskainitako emanaldiez gain, gure probintziako beste herritan ere eskainiko dira mendiko filme hauek, zenbaitetan guztiak eta aukeratutako batzu besteetan.

Ekainak 9, osteguna

AZKEN ERRONKA.(60')

1963ko udan Aragoiko bi mendizale, Alberto Rabada eta Ernesto Navarro, garai hartan Alpeetako erronkarik handienetakoa zena eskalatzen saiatzen dira: Eigerren iparraldea, hain zuzen ere.

1963an Espainiako mendizale bakar batek ere ez zuen lortu 2.000 metroko desnibela duen pareta beltz hori zeharkatzea.

Rabada eta Navarro ziur daude hau izan daitekeela beraien aukera.

Ekainak 16, osteguna

AZTARNA BILA (30')

Iragana oraina eta etorkizuna biltzen dira mendi berean: Bulnesko Naranjon. 1904an lortu zuten Asturiako Villaviciosako Markesa zen Pedro Pidal jaunak eta Gregorio Perezek, "El Cainejo" ezizena zuenak igo zuten lehenengo aldiz mendi hau. Lehenengo eskalada honen berreraikiketan nahastu egiten dira egun jada denarekin, hau da, zailtasun handiko eskaladarekin eta, beharbada bihar etorkizuna Europako Pikoetako etorkizuna mendi hauetan izango da.

ZERUAREN SUSTRAIAK (30')

Sumendiak, Lurraren Genesia eta gizonaren ametsik zaharrena eta iraunkorrena lotzen dituen abentura, hegan egitea, alegia, errealitate bihurtzen da Txilen. Baldintzarik makurrenei aurre eginez hegan etiten saiatuko dira aintzina inken aldare izan zen Licancabur sumenditik eta egun bizirik dagoen beste batetik, Lascar sumendi ikaragarritik, hain zuzen ere. Horrela behatu ahal izango da Atacama basamortu zoragarria, munduko basamorturik lehorrena, ikuspuntu berri batetik.

EKAINA ANTZERKI BIKAINA '94

Hemen dugu berriro Ekaineko antzerki zikloa, aurten Aita Mari zineman burutuko dena. Ekaina guztian zehar, larunbatero gaueko 10'30etan izango dugu antzezlan ezberdinak gozatzeko aukera.

Nahiz eta aurreko urteetan 300 pzta.ko sarrera izan zen, aurtengo ediziorako Diputazioak sarreraen salneurria baldintzatu du, 500 pztatara egokituz.

Egitaraua ondorengoa da:

Ekainak 4

MARKELIÑE

Entretejas

Antzezlan mutua.

Gaua teilatu gain batean, non ametsek tokia lapurtzen dioten zentzuari. Teila eta katu artean pertsonai bitxi ugarik aurkitzen du babesa; musika kaxa baten doinuak guztiak biltzen ditu.

Ekainak 11

BEDEREN 1

Argirik piztu gabe

Euskaraz.

Europako elkartearen laguntza bitarteko eta gure gobernuaren eraginez "Sexualitatearen Heziketa Kanpaina" deituriko hitzaldia aurkezten dizuegu. Bertan, hainbat arazo eta mamuren jatorria edota konponbidea azalduko zaizkizue.

Ekainak 18

IN FRAGANTI

Hala bazan ez bazan, sar dadila...

Euskaraz

Humorea gezur artean: gezur txikiak, haundiak, zuzenak, zeharkakoak, hirugarren batez esaten direnak, telefonoz esandakoak, hitzen anbiguetatea, gaizki ulertuak,...

Ekainak 25

TRAPU ZAHARRA

Tarde de sábado

Gazteleraz.

Abanguardiazko ikuskizun ulertezin batean, jende artean eserita dagoen senar-emazte langabetu batek, takillan lapurreta bat burutzen du, sarreren dirua eramanaz. Polizia iristen da, eta zinema inguratzen du....

UDAKO TXARTEL LEHIAKETA

Uztailan izango bada ere, Udako festetako txartel lehiaketarako bete beharreko baldintza batzu aurreratzen dizkizuegu:

Teknika librea izango da, Din A-3 neurriko txartel bat egin behar izango delarik, eta noski, nahi ta nahiezkoa izango da txartelean Udako Festak 94 esaldia azaltzea. Eta ez ahaztu, zuen lanak aurkezteko epea, Uztailaren 8an itxiko dela, beraz ez berandatu, saria goxo goxoa bait da: irabazlearentzat 60.000 pzta.

CORO PRIETO Estelicisla
Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g
Telefonoa: 861322
ZUMAIA

julio curiel PELLIJOVERO
Erribera kalea
Telefonoa: 862334

ITZURUN
KAFETEGIA
Itzurun kalea, z/g Telefonoa: 862124 20750 ZUMAIA

ERROTA
ERROTA
OPIL - OKINDEGIA
Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68
Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01
ZUMAIA

Endañeta Zumaia
* SUKALDERAKO ALTZARIAK
* ELEKTROGAILUAK
* BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA
Erribera, 8
Telefonoa: 861694
20750 ZUMAIA

GURUTZEGRAMA



EZKER ESKUIN: 1.-Lagunen arteko elkartea. 2.- Nobelak. 3.-Ez hau, ez hura. Lehenengoa. Bokala. Azkenekoa. 4. Eredutzat har daitekena. 5.-Nitrogenoaren sinbolo kimikoa. Zer. Zakur. Bokal bikoitza. 6.-Niri. Italiako dirua. Argoiaren sinbolo kimikoa. 7.- Hari, nuke. Bizkaieraz, ote. 8.-Bizkaian, pulamendu gutxiko. 9.- Ohorea. Gabarrak. 10.- Bokala. Oxigenoaren sinbolo kimikoa. Katilu txikia.

GOITIK BEHERA: 1.-Lehendabizikoa.2.- Soro. Toka, nuen. 3.- Fruitu arbola. 4.- Kanale. Euskal atzizkia. 5.- Neoiaren sinbolo kimikoa. Gurpilik gabeko gurdiak. 6.- Autonomia elkartea. Bokala. Bat. 7.- Kontsonante bikoitza. Senideak. 8.- Euskal atzizkia. Saila. 9.- Bizkaiko herria. Hitz grekoa. Ekarri aditzaren infinitiboa. 10.- Banaturik dagoen elkarte-kapitalaren zati bakoitza. Betekada.

KATE HITZAK

8 Letra
Akitania
Angeluak
Astekari
Katakume

7 Letra
Arantza
Lantegi
Osagile
Urkabea

4 Letra

Amak	Euri
Aroa	Isun
Atal	Kale
Atzo	Kepa
Azao	Nauk
Edan	Nori
Egin	Okin
Ekin	Reno
Elea	Tira
Emea	Urak
Eria	Uzki
Euli	Zena

3 Letra

Art	Zin
Ber	
Lai	
St	
Zz	

2 letra

Am
Da
Ek
Ip
It
Lu
St
Zz

Txokolatezko moussea

Axier Irigoien

Osagaiak:

250 gr. txokolate
4 arraultze
250 gr. esnegain
6 goiladakada azukre
2 goiladakada ur
kopa erdi koñak
tanta pare bat limoi

Prestaketa:

Lehendabizi gorringoak eta zuringoak banandu egin behar dira. Batidora batean 5 goiladakada azukre, koñaka eta gorringoak nahastuko ditugu azukrea ondo disolbatu arte.Ondoren, txokolatea txikitu eta urtzen jarri sutan bi goiladakada urekin eta su bajuan. Txokolatea ondo urtuta dagoenean lehen egindako nahasketari botako diogu, baina txokolatea piskanaka bota behar da. Dena ongi nahastu eta esnegaina batuko degu; nahasketari esnegaina bota ondoren ez da asko batitu behar, nahikoa da nahastearekin. Batidoran zuringoa nahastu behar da elur puntura, gelditzen den azukre goiladakadarekin eta limoi tantekin, honek lagundu egiten diolarik batitzen. Zuringoa ere nahasketara bota eta nahastu egingo degu. Hozkailuan sartu 2 ordutan eta kopa batzuetan jarriko degu.

Oharra: Esnegaia erabili beharrean gurina erabili dezakegu.

HARREMANAK

Hire bizitza osoan ez dekela neskatan egin!? Oraintxe daukak aukera ederra. Bidali itzak hire mezuak eta ziur bapatian herriko neska guztiak hire atzetik izango ditukela.

Hire bizitza osoan ez denela mutiletan egin!? Oraintxe daukan aukera ederra. Bidali itzan hire mezuak eta ziur bapatian herriko mutil guztiak hire atzetik izango ditunela.

Ene xagutxo maitia! gazta eder bat daukat zuk nahi dezunean jateko prest. Zeuk ere melokotoi pare ederra badituzu deitu nazazu, merienda ederra dugu eta! Erreferentzia mezuan bertan dago.

AGURRAK

Xipilian txori xarrak kobaxuloko bexte 3 txori xarrei: Xuertia ixan examinetan eta mundialeko partidu gutxi ikuxi!

Txintxi: Insumisioa!

SALDU-EROSI

Gabonetan oparitutako bizikleta bat zeukat etxean, berri berria, "último modelo". Hala ere, potrohaundi bat nauk eta nahiago diat egun osoa telebista aurrean pasa, txoruan moduan bizikleta gainean izerditan jardun baino. Hiri berriz, txoruana egitea gustatzen bazaik, gustora erregalatuko nikek.

Gutunak

LIBURUTEGIA ALA OILOTEGIA?

Guztiok jakin badakigu, ez dela erreza udal liburutegi batetan ordena eta isiltasuna mantentzea, baina Zumaiako kasua benetan berezia da.

Erreza da ulertzea zergaitik ez den unibertsitateko ikaslerik joaten bertara ikastera, edo bere eskolako lanak egitera, bertan egoten den zarata izugarria izaten bait da.

Nik, unibertsitateko ikasle bezala egoera hori sufritu behar izan det, Zumaiako liburutegian ikasteko saiakera bat egin dudan bakoitzean. Ez dago errespetorik bertan egoten diren beste jendearengandik, zarata da nagusi, eta bertako arduradunak ezer gutxi egiten du hori ekiditeko.

Benetan, badagoela diferentzi nabarmen bat Donosti, Bilbo eta beste herrietako liburutegietan egon ohi den ikasketa girotik, Zumaiako liburutegian egoten den oilotegi girora.

Horregaitik eskatuko nioke liburutegiko erabiltzaile diren guztiei, begirune piskat gehiago beraien ikaskideekiko, eta bidebatez, liburutegiko arduradunari, bere lanean seriotasun gehiago, zeren nahiz eta erreza ez izan, lor daiteke, eta horrela guztiok bete-betean aprobetxatu ahal izango ditugu liburutegiak eskeintzen dizkigun baliabideak.

Esteban Illarramendi
(Zumaia)

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Marije Lisbona
BORDATUAK
· Eskolako eta kirol jantziak
· Toalla eta izareak
· Logotipoak, txapelak, etab
Foruen enparantza, 11 Tel. 143468
ZUMAIA 861159

agustin
HARATEGIA
URDAITEGIA
Itzurun Zubaitz-bidea, 1
20750 ZUMAIA Telefonoa: 862430

Zumaia, 1919. urtea

Solozabal autoeskola

Gidariak lantzen onenak

Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean.
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta, 19 - Bis Tel. 861416 • Fax: 861416 ZUMAIA